

EAEko hiru gaztetik bi pozik daude beraien ingurugiro hurbilaren kalitatearekin



EAEko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen %94k oso edo nahikoa garrantzitsutzat jotzen dute kalitatezko ingurugiroa izatea pertsona baten bizi-kalitatea bermatzeko.

Ehuneko hori %69ra jaisten da beraien gertuko ingurugiroarekin oso edo nahikoa pozik dauden gazteak zenbatzen direnean.

Iritzi hauetan ez da alderik nabaritzen EAEko gazteriaren eta biztanleria osoaren artean.

Datuok Eusko **Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak** 2011n **IHOBE**rentzat egindako "[Bizitza kalitatea eta jasangarritasuna](#)" ikerketatik atera eta aztertu ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#), **Ingurugiroaren Munduko Eguna** dela eta.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

